



Ekitaldiak

Zure ekitaldia BERRIAN agertzea nahi baduzu: www.berria.info/zerbitzuak/agenda/bidali/

Musika

- **Azpeitia.** Kasik eta Blokeo. Gaur, 22:00etan, gaztetxean.
- **Bergara.** DJ Loro. Gaur, 00:00etan, Bergarako gaztetxean.
- **Bergara.** Eñaut Elorrieta. Gaur, 23:00etan, Bergarako pilotalekuan.
- **Bermeo.** Su Ta Gar. Gaur, 22:00etan, Bermeoko Lamera parkean.
- **Elgeta.** Ezl. Gaur, 00:00etan, gaztetxean.
- **Gasteiz.** Kushan Khan. Gaur, 02:30ean, Jimmy Jazz aretoan.
- **Gernika-Lumo.** Wishful Singing. Gaur, 20:30ean, Lizeo antzokian.
- **Lasarte-Oria.** Oreindik eta Aski da. Gaur, 22:00etan, Zulo aretoan.
- **Legazpi.** Gauko Arimak Fest 13: Hilotz, Soldier, Ethos eta Taupada. Gaur, 22:30ean, gaztetxean.
- **Oñati.** Egurra ta kitto, eta erromeria. Gaur, 22:00etan, Antxoneko gaztetxean.
- **Urretxu.** Sweet Jean. Gaur, 20:00etan, Fox tabernan.
- **Urretxu.** Agresion verbal, Kar tal eta Artilleria pesada (hirurak batera) eta Los Zopilotes Txirriarri. Gaur, 23:00etan.
- **Zizur.** Gaur ez, Txumatxos eta Bide Bakarra. Gaur, 22:30ean, txosnetan.

Antzerkia

- **Donostia.** Terapiak. Igandera arte, 20:00etan, Antzoki Zaharrean.

Bertsolaritza

- **Deba.** Bertso afaria. Julio Soto eta Iker Zubeldia. Gaur, 21:00etan, Lasturko tabernan.
- **Legazpi.** Aitzol Barandiaran eta Agin Laburu Rezola. Gaur, 20:00etan, Nafarroa kalean.
- **Orio.** Sebastian Lizaso, Sus-trai Colina, Xabi Paya, Maialen Lujanbio, Jon Maia eta Andoni Egaña. Gaur, 22:30ean, Karela kiroldegian.
- **Urduliz.** Igor Elortza, Amets Arzallus, Unai Iturriaga eta Onintza Enbeita. Gaur, 20:30ean, kultur etxean.
- **Villabona.** Iñaki Apalategi, Jokin Labayen, Jon Martin eta Arkaitz Oiarzabal *Xarnea*. Gaur, 22:00etan, RK tabernan.

Dantza

- **Donostia.** *La del Soto del Párral*. Gaur eta bihar, 19:30ean, Viktoria Eugenia antzokian.
- **Ordizia.** Errimak oinetan: dantza berriak, bertsoei jarriak. Gaur, 22:15ean, herri antzokian.
- **Zaldibia.** Alurr dantza taldearen *Soinazikusizuna*. Gaur, 22:30ean, Resti pilotalekuan.

Erakusketak

- **Bilbo.** *Telefonicaren bilduma kubista* erakusketa. Gaurtik urtarrilaren 14ra arte, Bilboko Arte Ederren museoan.
- **Bilbo.** *El marino vasco Santhi Andía, el Temerario*. Gaurtik urtarrilaren 14ra arte, Bilboko Arte Ederren museoan.
- **Hazparne.** Beñat Loyatho margolariaren erakusketa. Gaurtik hilaren 23ra arte, Eihartzeta etxean.

Hitzaldia

- **Donostia.** *Presak, pantanoak eta azpiegitura hidraulikoak: azpiegitura hidraulikoaren ondorioak*. Gaur, 19:00etan, Kristina-enean.
- **Donostia.** *Bonba eta svastika*. Gaur, 19:30ean, Andia aretoan.

Ikastaroak

- **Donostia.** Balkoian baratzea jartzeko ikastaroa. Izen emateko epea irailaren 30era arte, Kutxa Ekogunean.

Lehiaketak

- **Donostia.** *Altxamendu frankistaren bitartean eta ondoren-gorurteetan exekutatuak 400 pertsona inguru horiek oroitzeko lehiaketa*. Azaroaren 13ra arte, Donostiako Udalean.

Bestelakoak

- **Bilbo.** *Creative Coding - Arte Generativo*. Gaur eta bihar, 00:00etan, Alondagian.
- **Bilbo.** *Bilbo idazleen luman* ibilbide gidatua. Gaur, 10:30ean, Bilboko Kafe Antzokian.
- **Bilbo.** *iAy Carmela!* Gaurtik hilaren 23ra, 20:00etan, Euskalduna jauregian.
- **Donostia.** Hipo eta Tomaxen eskutik, *Mendizaleak*. Gaur, 12:00etan, Luis Martin Santos plazan.
- **Donostia.** Korri, Xaltoa ta Brinkoren eskutik *Artista bat naiz ni*. Gaur, 18:00etan, Larrotxene plazan.
- **Donostia.** Behatoki astronomikora bisita gidatua. Gaur, 21:30ean, Eureka Zientzia musean.
- **Durango.** Markinako senegaldar elkartearen 10. urteurrena. Gaur, 21:30ean, Plateruena antzokian.
- **Hondarribia.** STOP Kalera-tzeak kolektiboaren afari solidarioa. Gaur, Ballestanea jate-txean.
- **Irun.** Expogrow. Gaur, Ficoba erakustazokan.
- **Usurbil.** Masusta Kofradiaren Eguna. Gaur, 21:00etan, Txirritra tabernan.

Kalamuzaleentzako azoka

Expogrow jaialdia egingo dute bigarren aldiz asteburu honetan, Ficoban; Europa osoko azokarik handiena

Erredakzioa

Euskal Herriko kalamuzaleek beren zaletasunaz gozatzeko aukera izango dute aurtien ere. Gaur hasi eta etzi arte, Expogrow azoka bigarren urtez egingo dute Irungo Ficoba erakustazokan (Gipuzkoa).

11:00etan irekiko dute azoka; 7.000 metro koadroko lekua hartzen du, eta gisa horretan Europan egiten den azokarik handiena da. Kontinente osoko 200 profesionalak eta markak hartuko dute parte. Kalamuaren autoekoizpena eta autokontsumoa sustatu bide du Expogrowek.

Arratsaldean, 15:30ean, foro sozialaren lehen jardunaldia egingo dute —bihar ere egongo dira hitzaldia—. Kalamuaren legeztatzearen inguruan hitz egingo dute mintzaldi horietan. Besteak beste, Xabier Arana EHUko Kriminologia Institutuko kideak eta Julio Calzada SG Uruguako Drogen Batzordeko kideak parte hartuko dute foruan. Parte hartzeko Expogrowen webgunean eman behar da izena.



Kalamu plantazioa, izako Expogrow jaialdian. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Kalamutik harago doa, dena den, Expogrow azoka. Askotariko ekitaldiak antolatu dituzte aurtengoan ere. Bihar, Izeta aita-semeek marka ahalegina egingo dute 125 kiloko harriarekin. Musiak ere izango du bere tartea. 19:00etan hasiko dira emanaldiak; Berri Txarrak, Lee Perry

Scratch, Sinsemilla eta JSK taldeak igoko dira erakustazokako oholtza gainera. Skate txapelketarekin itxiko dute etzi jaialdia.

EXPOGROW

- **Noiz.** Gaurtik etzira.
- **Non.** Ficoba erakustazokan, Irunen (Gipuzkoa)

Bonba atomikoa eta naziak

‘Bonba eta svastika’ hitzaldia emango du Amand Lucas Belgikako fisikariak, Quantum 13 jardunaldien atariko

Erredakzioa

Zer gertatu zatekeen naziek erabili izan balute bonba atomikoa? Alemaniarrak hartu izan balute aurre Bigarren Mundu Gerrako lasterketa nuklearrean? Edo inork erabili izan ez balu? Sekula erantzuterik izango ez dugun galderen inguruan ariko da gaur Amand Lucas Belgikako Namur Unibertsitateko Fisika katedraduna.

Belgikako fisikariak zientziarentzat eta gizateriarentzat garrantzitsuak izan diren hainbat gertakari xehatuko ditu *Bonba eta svastika* izeneko hitzaldian. Historiatik fikzioa sortuta, gizateriaren patua aurkeztuko du, norbanakoen erabakiek erabateko suntsipena nola eragin dezake-



Alemaniako soldaduak Bigarren Mundu Gerran. BERRIA

ten erakutsita. Adin guztietarako zientzia, historia, literatura eta antzerkia. Sarrera doakoa da, eta ez da alde zuretik izenik eman behar. Lucas ingelesez ariko da.

Passion for Knowledge - Quantum 13 zientzia jardunaldietako atariko gisa aurkeztu dute katedradunaren hitzaldia. Irailaren 30etik urriaren 6ra bitarte izango dira jardunaldiak. Mundu osoko hizlariak gonbidatu dituzte; tartean, Dame Jocelyn Bell Burnell

eta Aaron Ciechanover, Fisikako eta Kimikako Nobel saridunak, hurrenez hurren. Lucasek berak ere mintegi batean parte hartuko du; Iruñean, urriaren 9an. Jaialdiko hitzaldietan izena emateko epea irekia dago www.quantum13.eu webgunean.

HITZALDIA

- **Noiz.** Gaur, 19:30ean.
- **Non.** Andia aretoan, Donostian.